



Lan deialdia: Nafarroako Bertsozale Elkarteko sustapen eragilea

Nafarroako Bertsozale Elkartek **sustapen eragile** bat behar du, urtebeteko ordezkapen bat egiteko. Curriculum Vitaeak eta motibazio gutunak aurkezteko epea: 2023ko urriaren 20a, ostirala (barne).

Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua, lanaldi osoz.
- 2024ko urtarrilaren 1ean hastekoa.
- Lan lekua: Nafarroako Bertsozale Elkartearen Iruñeko egoitza.
- Urtean 35.952,53 euroko soldata gordina.

Lanpostuaren deskribapena:

Nafarroako Bertsozale Elkartearen sustapen egitasmoak diseinatu eta aurrera eramateko pertsona baten bila ari gara. Besteak beste, bertso saioren antolaketa, txapelketa eta sariketa ezberdinen diseinua, hainbat kultur programazioen kudeaketa, sortzaileekin zein kultur eragileekin harremanak, aisialdi egitasmoen antolaketa... izango dira haren eginkizun nagusiak.

Eskatzen da:

- Unibertsitateko lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua izatea.
- Bertsolaritza eta euskal kulturaren ezagutza.
- Euskara maila altua izatea (EGA titulua edo balioduna).
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Baloratuko da:

- Taldeen dinamizazioan esperientzia izatea.
- Kultur eta aisialdi kudeaketan eskarmentua izatea.
- Kudeaketarako eta bulego lanetarako gaitasuna.
- Izaera planifikatua, ordenatua, ekintzailea eta dinamikoa izatea.
- Komunikazio eta administrazio baliabideen ezagutza.

Interesa duenak **Curriculum Vitae-a** eta **motibazio gutuna** bidali behar ditu Nafarroako Bertsozale Elkartera (nafarroa@bertsozale.eus), **2023ko urriaren 20ra bitarteko epean (barne)**. Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat helbide horretara edota deitu: (+34) 948 14 37 47.